

32/2018 IDAZKARI NAGUSIAREN TXOSTENA

Gaia: HAPOaren 3. tituluko erabilera ordenantzen 3.7.1 artikulua aldaketa

JURDANA URIARTE LEJARRAGAK, Bermeoko Udaleko idazkari nagusiak, Toki Erakundeen Izaera Nazionaleko Gaikuntzadun Funtzionarioen Araubide Juridikoa onartzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3. artikulua arabera egin dut hurrengo

TXOSTENA

Aurrekariak

Lehena.- 2018ko urriaren 22an Urigintza, Obra eta Ingurumen saileko Administrazio Orokorreko Teknikariaren txostenaren arabera Hapoak 3.7.1. artikuluan definitzen dituen erabilera eta garaje kategoriak aldatzeko beharrezana dago.

Bigarrena.- 2018ko urriaren 22an Urigintza, Obra eta Ingurumen saileko Administrazio Orokorreko Teknikariak erabaki proposamena egin du.

Hirugarrena.- 2018ko urriaren 26an Urigintza, Obra eta Ingurumen Batzordeak aldeko irizpena eman du.

Oinarri juridikoak

1. Aplikagarria den araudia

- Ekainaren 30eko 2/2006 Lurzoru eta Hirigintzaren euskal Legea (58; 75, 103 artikulua)

- Bermeoko Herri Antolamendurako Plan Orokorra (2016-08-22ko BAOn argitaratua)

- Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen (4.1.a, 22.2.d, 25, 49, 65.2, 70.2 artikulua)

- 1955eko ekainaren 17ko Dekretua, Toki erakunde zerbizuen araudia onartzen duena (23-29 artikulua)



- Apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, Toki erakundeen lege xedapenen Testu Bateratua onartzen duena. (56 artikulua)

- Urriaren 1eko 39/2015 Administrazio Publikoen Administrazio Prozedimendu Erkidearen Legea (128,129 eta 133 artikulua)

2. Azterketa juridikoa

A) Oinarrizko kontzeptuak

Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen 7/1985 Legeak 4.1. a artikuluan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedimendu Erkidearen 39/2015 Legearen 128.artikuluan aitortzen da udalek duten eskumena araudiak egiteko eta autoorganizatorako. Hori horrela, Bermeoko Udalak bere eskumenen inguruan legeek ezarritakoa garatu dezake izaera orokorreko xedapen administratiboen bitartez, zeintzuk beti legea errespetatu behar duten.

Hori horrela, Bermeoko Udalak Herri Antolamendurako Plan Orokorra behin betikoz onartu zen 2016ko abuztuaren 22an. Plan Orokorraren barruan, Ordenantzak onartu ziren., ez HAPOaren derrigorrezko dokumentu moduan.

Izan ere, berez, Ordenantzen inguruan, 2/2006 Legearen 75.1 artikulua dio Toki-araubidearen legeriaren arabera eraikitzeko eta urbanizatzeko ordenantzak onartu behar ditzutela udal guztiek.

Are gehiago, 2/2006 Legeak 103.3 artikuluan hirigintza planen berrikustei buruz adierazten du: *Izapideak egiteari dagokionez, plan orokorreko elementuen aldaketak bereizketa hori izango du kontuan, eta aldaketak eragindako zehaztapenak bere lerrun edo izaerari dagokien antolamendu-figurak dituen arauei egokitu beharko zaizkie, 58. artikuluan ezarritakoaren arabera.*

Eta 58. artikulua dio:

1.- Hirigintzaren egiturazko antolamenduaren zehaztapenek plangintza orokorraren berezko maila hierarkikoa izango dute. Plan orokorrak dakartzan gainerako zehaztapenek, berriz, antolamendu zehatzaren maila izango dute.



2.- Hirigintzaren antolamendu xehatuaren zehaztapenek dena delako garapen-plangintzaren berezko maila hierarkikoa izango dute.

3.- Antolamendu xehatuak dakartzan zehaztapenek ezin dute egiturazko antolamenduak dakartzanen aurkako ezer esan, non eta aurretiaz edo aldi berean ez den dena delako plan orokorra aldatzen edo berrikusten.

4.- Egiturazko antolamenduaren eta antolamendu xehatuaren artean inolako kontraesanik baldin badago, plan orokorrak dakarren egiturazko antolamenduak izango du lehentasuna.

Horiek guztiak kontuan izanik, egoki ikusten da Ordenantza Toki araubidearen legearen arabera aldatzea, beti ere, hierarkian gorago dauden zehaztapenen kontra egin gabe.

Ordenantza aldatzeko nahitaez 39/2015 Legearen 129.artikuluaren ezartzen diren printzipioak errespetatu behar dira espediente guztian zehar, hau da, beharrezkoa, efikazia, proportzionaltasuna, segurtadun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia printzipioak.

Kuantifikatu eta balioetsi behar dira ordenantzaren eragin eta erreperkuzioak, baldin eta gastu eta sarrerak suposatzen baditu, bai gaur egun, bai etorkizunean. Hori guztia aurrekontuaren egonkortasuna eta finantza iraunkortasunaren printzipioak betetzeko.

B) Jarraitu beharreko prozedura

39/2015 Legearean 133. artikulua eta 7/1985 Legearen 49 eta 70.2 artikulua kontuan hartuta prozedura hurrengoa izan behar da:

a) Ordenantza aldaketa udalaren urteko plangintzan aurreikusita egon behar da (39/2015 legearen 132art).



b) Saileko teknikari arduradunak HAPOaren 3. tituluko erabilera ordenantzen 3.7.1 artikulua aldaketaren beharrezko justifikatuko du.

c) Ordenantza aldaketaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da Bermeoko Udalaren webguneari bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarriek puntu hauei buruz:

- ◆ Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
- ◆ Arau hori onestea beharrezko eta egoki den
- ◆ Arauaren helburuak.
- ◆ Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

39/2015 Legearen 133.4. artikulua zera dio: *Podrá prescindirse de los trámites de consulta, audiencia e información públicas previstos en este artículo en el caso de normas presupuestarias u organizativas de la Administración General del Estado, la Administración autonómica, la Administración local o de las organizaciones dependientes o vinculadas a éstas, o cuando concurren razones graves de interés público que lo justifiquen.*

d) Saileko teknikari arduradunak ordenantza aldatzeko erabaki proposamena egingo du.

e) Hala dagokionean, kontuhartzaileak txostena egin beharko du kuantifikatzeko eta balioesteko ordenantzaren eragin eta erreperkuzioak, baldin eta gastu eta sarrerak suposatzen baditu, bai gaur egun, bai etorkizunean. Hori guztia aurrekontuaren egonkortasuna eta finantza iraunkortasunaren printzipioak betetzeko.

f) Idazkari nagusiak txostena egin beharko du.

g) Informazio batzordeak erabaki proposamenaren irizpena eman beharko du.

h) Osoko bilkuraren ordenantza hasieraz onartuko du, gehiengo soilez, 7/1985 Legearen 22.2.d eta 47. artikuluekin bat etorriz.



i) Informazio publikoa eta entzunaldia gauzatuko dira, interesdunek 30 eguneko epean erreklamazio edo iradokizunak aurkezteko. Hasierako onarpena webgunean, edikuen taulan eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

j) Osoko Bilkurak aurkeztutako erreklamazio eta iradokizunak ebaztea eta behin betikoz ordenantza onartzea.

Hasierako onarpenean ezarri daiteke erreklamaziorik izan ezean obra txikien lizentziari eta aurretiazko jakinarazoei bidezko obrei buruzko udal ordenantzaren eraldaketa automatikoki behin betikoz onartuta egongo dela, baina horretarako arduradunaren txostenean oinarritutako idazkariaren ziurtagiria beharko da alegaziorik egon ez direla egiaztatuz.

k) Erabakia eta ordenantzaren testu osoa argitaratu beharko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Bermeoko Udaleko gardentasun atalean eta ediktuen taulan eta indarrean sartuko da BAO n argitaratu eta 15 egun igarota, 7/1985 Legearen 65.2 artikulua araberera.

Ondorioak

Espedientetik ezin da ondorioztatu hurrengo baldintzak bete direla:

- Justifikatu beharko da aldaketaren beharrezan interes publikoan oinarritzen dela eta hierarkian goragoko zehapenekin kontraesanik ez duela suposatzen.

- Aldaketa Udalaren urteko plangintzan aurreikusita egon behar da (39/2015 legearen 132art).

- Ordenantza aldaketaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratu behar da, salbu eta 39/2015 legearen 133.4 artikulua aplikagarria bada.

- Kontuhartzailearen txostena beharko da edo, hala badagokio, justifikatu behar da ordenantza aldatzeak ez duela gastu eta sarrerarik suposatuko eta, beraz, ez duela aurrekontuaren egonkortasunean eta finantza iraunkortasunean eraginik izango.



Hori da nire ustea, zuzenbidean oinarritutako bestelako irizpideen kalterik gabe.
Hori horrela, Osoko Bilkurak egoki deritzona erabakiko du.

Bermeon, 2018ko azaroaren 21ean

Jurdana Uriarte Lejarraga

Idazkari nagusia

Jasota,

Idurre Bideguren Gabantxo

Alkatea

